

# Hamazazpi

2014ko udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

- \_ ZIGOITIAK FRACKINGARI EZETZ DIO
- \_ GASTEIZ/ZIGOITIA AUTOBUS LINEA BERRIA
- \_ GORBEIA PARKE NATURELEKO I. ABERE AZOKA
- \_ 3 HANDIAK, AURTEN ERE GOPEGITIK ABIATUTA
- \_ GORBEIA ESKOLAKO LANTEGIRIK DIBERTIGARRIENA
- \_ EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (2014-2017)
- \_ INFORMAZIO BATZORDE PARTE-HARTZAILEAK JAIO DIRA





## Hasteko...

**03 Klaketa.net**

Zinema Mundua, Zigoititik blogosferara

**04 Herritarren parte-hartzea**

Informazio Batzorde Parte-hartzaileak jaio dira

## Hemen eta orain

**06 Garraio publikoa**

2015ean Gasteiz/Zigoitia autobus linea berria jarriko da martxan

**08 Euskera**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (2014-2017)

**09 Fracking**

Zigoitiak frackingari ezetz dio. Teknikaren aurkako sinadurak jasotzen ari dira Udaletxean.

## Made in Zigoitia

**10 ZIGOITIKO EKONOMATOA**

Bertakoa, zuzena eta garbia

## Planak

**11 Gorbeia Parke Naturaleko I. Abere Azoka**

Zaldiaren feriatik banandu egin da, berezko nortasuna izateko

**12 Hiru Handiak mendi lasterketa**

1.500 korrikalari ekarriko ditu Zigoitira ekainaren 14an

## Azkena

**16 Batzuk**

- Argazki Lehiaketa eta Eguzki Jaia iragartzeko kartelaren lehiaketa, martxan
- Autobus ordutegiak

Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2014 ko udaberria

**Azaleko argazkia:** Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



Iñaki Gauna, *Klaketa* blogaren egilea eta Blogetan! lehiaketaren irabazlea

## Zinema mundua, Zigoititik blogosferara

Iñaki Gauna zigoitiarra zoriondu nahi dugu, Azkue Fundazioak Argia astekariaren laguntzarekin antolatutako *Blogetan! Blog izarren bila* lehiaketako Kultura arloko saria irabazteko. 2013an lehenengo aldiz martxan jarritako egitasmoak oso harrera ona eduki zuen eta 115 blog apuntatu ziren. Lau kategorian ezarri ziren lehiaketan: Kultura arloko blogak, Gizarte eta Politika arloa, Aisialdiarekin erlazionatutako gaiak eta Zientzia eta Teknologia. Aurtengo martxoan jakinarazi dutenaren arabera, lehenengo kategorian Iñaki Gauna dugu garaile, *klaketa.net* blogari esker. "Niretzat eta *klaketa*-rentzat sari hau garrantzia handikoa da. Oscar baten parekoa. 'Maite zaitut' entzutearen parekoa. Bai horixe! Urte askoren lanaren aitormena", adierazi du Iñakik bere blogean bertan.

Oraindik ere saritutako bloga ez baduzue ezagutzen eta zinema mundua gustuko baduzue, *klaketa*ra hurbildu, besterik ez duzue egin behar, film laburrak, komikiak, berriak, elkarrizketak, liburuak eta bitxikeriak, besteak beste, eskuratzeko.



## 2014ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

**LANDA ETA KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA** .....

**Borondatez kobratzeko epea:** 2014-05-01 \_ 2014-06-30

**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**

Ekainaren hasieran (zatikapen posiblea: erdia ekainaren hasieran eta gainontzekoa azaroan. 200 € baino gehiagoko zenbatekoak).

**ZABOR-BILKETAREN TASA** ..

**Borondatez kobratzeko epea:** 2014-05-01 \_ 2014-06-30

**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:** Ekainaren hasieran

**IGERILEKUAK** .....

**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:** Aurreko urteetan abonatuak, bainu-denboraldia hastean. Abonatu berriek, alta ematerako unean bertan.

**UDALEKUAK** .....

**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:** Udalekuaren hasieran

**ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA**

**INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.org

**Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:**

Ordaintzeko lekuak: Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitikoudala.org](http://www.zigoitikoudala.org) (Nire ordainketa).

**Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:** Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

**AHOLKUAK** .....

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarik jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

**BETEARAZPEN EPEA** .....

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

## INFORMAZIO BATZORDE PARTE-HARTZAILEAK jaio dira

- Herritarren parte-hartzeari atea irekitzen dion araudia onartu du Udalak
- Zigoitiarrek joateko eta iritzia emateko eskubidea izango dute, baina botorik gabe



Udal jardueraz informaziorik zabalena eskaintzeko eta udalerriko bizitzan herritarren parte - hartzea bultzatzeko, Zigoitiko Udalak herritarrei Informazio-Batzordeetako atea irekitzen dizkien Araudi Organikoa onartu du. Honen arabera, 'herritar guztiek dute eskubidea udal eskumeneko gai publikoen kudeaketan - zuzenean edo elkarten bidez - esku hartzeko, informazio batzordeetan parte hartuta'. Hemendik aurrera publikoak dira eta edonor joan daiteke; hala ere eztabaidak eta bozketak ezkutuak izan ahalko dira ohorerako zuzenbide konstituzionalari, familiaren edo bakoitzaren intimitateari, eta berezko irudiari eragin diezaieketen kasuetan.

### Nola har dezakezu parte?

Ordenamendu berriak ezartzen du nola burutuko den publikoaren parte-hartzea:

'Gai zerrendako puntu bakoitzaren inguruko eztabaida amaituta, eta alkateak baimena eman ondoren, publikoko jendeak eztabaidatutako gaiari buruzko iritzia eman ahal izango du, alkateak adierazitako denbora tartean, gai zerrendako proposamenaren bozketa egin baino lehen. Arau testuak argitzen du, era berean, publikoak ez duela bozkatzeko eskubiderik izango. Eta gehitzen du: 'Batzordearen bilkura bukatu ondoren, alkateak txanda eman diezaiekie bertaratutakoei udal interesekoak diren gai jakin batzuei buruz eskaerak eta galderak egin ditzaten. Alkateari dagokio txandak eman, antolatu eta kentzea. Araudi hau indarrean sartzeak Korporazioaren gaur egungo funtzionamenduan aldaketak ekarriko dituen gero, nolabait izaera experimentalak du eta bere edukia ikuskatuko da egokia iruditzen denean.

### Baina, zer da Informazio Batzordea?

Izen ofiziala, berez, *Kontuetaarako Informazio-Batzorde Berezia, Kudeaketako eta Gobernuko Informaziokoa, eta Osoko Bilkuraren Gaien Prestaketarakoa* da; udal-arlo guztiak biltzen dituen komisio bakarra da, eta, 2013tik hona, lehen zeuden guztiak (Kultura, Hirigintza, Mendi Komisia...) ordezkatzen dituena. Informazio Batzordea Korporazioko kideek (bere zinegotzien bidez ordezkatutako talde politikoei) eta, hemendik aurrera, nahi duten herritarrek parte hartzen duten organoa da. Eta bere eginkizun nagusiak dira Osoko Bilkurara eraman behar diren gaiak aztertzea, informatzea eta kontsultatzea; eta Alkatearen eta eskuordetzeak dituzten zinegotzien kudeaketa jarraitzea. Batzorde hau eskuduntza erabakitzaile gabe organoa da (ezin du ezer erabaki) eta, gutxienez, hilabete behin egiten da. Salbuespenik ezean, hilaren hirugarren asteazkeneko goizeko 9:00etan egiten da. Eta deialdia iragartzen da, gai zerrendarekin batera, 48 orduko aurrerapenarekin Udaleko iragarki taulan, 17 Administrazio-Batzarretako iragarki tauletan, Etxabarri Ibiñako eta Gopegiko kartel argidunetan, eta [www.zigoitikoudala.com](http://www.zigoitikoudala.com) web orrialdean.

### Zigoitiko Elkarteak

- GORBEA NAGUSIEN ELKARTEA
- ZUBIALDE EMAKUMEEN ELKARTE KULTURALA
- GORBEIA ESKOLAKO IGE
- OKETA ELKARTEA
- ZINHEZBA KULTUR ELKARTEA
- ASKOR EHIZA KIROL ELKARTEA
- ZIGOITIKO EKONOMATOA
- ABADELAUETA ELKARTE ETNOGRAFIKOA
- ZIZKIÑO MENDI ELKARTEA
- DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEA
- LIZARANDA ERAKUNDEA
- ZIGOITIA ZAINZTA ZIZA ELKARTEA
- SOKALARIAK KIROL ETA KULTURA ELKARTEA

Udaletxean erregistratutako elkarteak. Informazio gehiagorako, jo udal webgunera: <http://www.zigoitikoudala.com/eu/herritarren-parte-hartzea/elkarten-erregistroa>



### Herritarren Parte-Hartze Kontseiluak

Informazio-Batzordeetara joateaz gain, udalaren garapenean aktiboki parte hartzeko beste modu batzuk ere badaude. Parte-Hartze Kontseiluen bidez, esate baterako. Egun, jardunean ari dena Kultura Kontseilua da. Hiru hilabete behin elkartzen da Zigoitiko kirol eta kultur mugimendua antolatzeko, kontseiluko kide guztien proposamenak eta iradokizunak aztertu ondoren. Bilera honetara udal talde guztiak eta udalean erregistratutako elkarte guztiak daude gonbidatuta (ordezkari bat talde bakoitzarentzat). Eta baita hala nahi duten norbanakoak ere. Parte hartu ahal izateko, Kultura teknikariari aldeztu aurretik jakinarazi besterik ez dute egin behar.



2015erako berritasunak garraio publikoan

## Gasteiz/Zigoitia autobus linea berria, zerbitzu gehiagorekin

Asteburuetan garraio publikoa egongo da, eta beste linea bat jarriko da Zaitegira



2015eko urtarriletik aurrera, zigoitiarrek garraio publikoko zerbitzu zabalagoa eta hobea izango dute. Egunero autobus maiztasun handiagoa egongo da, asteburuetan ere garraio publikoa eskainiko da, eta ibilbide berriak abiaraziko dira herri gehiago lotzeko. Horrela dio pasa den otsailaren 18an Diputatu Kontseiluak onartutako *Errepideko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularren zerbitzuen aurreproiektuak*. Hurrengo pausoa udan iritsiko da, Area Kontzesioak lehiaketara aterako momentuan datorren urteari begira Arabako garraio publikoko antolamendu berria gauzatu ahal izateko.

Proiektuak garraio publikoko mapa erabat aldatuko du eta Araba 5 siletan banatuko du:

- **Erdialdeko Araba**
- **Aiara**
- **Arabako Errioxa**
- **Miranda de Ebro – Gasteiz - Durango**
- **eta Bilbo - Logroño**

Gaur egun dagoen Gasteiz – Etxaguen linea **AR01 – Erdialdeko Araba** kontzesio berriaren barruan geratuko da, zenbait aldatzarekin. Eta Zaitegira ailegatuko diren lineak, **AR02 – Aiarako** kontzesioaren barruan. Baimen berriek 10 urteko iraupena izango dute, kontzesioa duten enprekin sinatutako kontratuen datatik aurrera.



### Gasteiz – Etxaguen linea

Zigoitiko udalerraren zati handienera ailegatzen den linea da. Kontzesioa 2012ko apirilaren 25ean bukatu zen, baina Arabako Foru Aldundiak luzatu egin zuen lehiaketa berria esleitu arte.

2015 urtetik aurrera Gasteiz / Zigoitia izena izango du. Eta izenez gain, ibilbidea ere aldatuko da, autobusak herrigune gehiagotara iristeko moduan. Aurreproiektuaren arabera ibilbide berria, joanaldikoa eta itzulerakoa, hurrengo hau izango da:

### Gasteiz

**Etxabarri Ibiña (merkatal zentroa)**

**Etxabarri Ibiña**

**Apodaka**

**Berrikano**

**Buruaga**

**Eribe**

**Gopegi**

**Manurga**

**Larrinoa**

**Murua**

**Etxaguen**

**Akosta**

**Zestafe**

Buruaga, Manurga, Akosta eta Zestafe herrietan emango den zerbitzua *Eskarira hurbiltzekoa* izango da. Hots, autobusak aipatutako herrietatik pasatzeko aldeztu aurretik kontzesioa duen enpresari deitzea beharrezkoa izango da (bidaiaria jasotzeko) edo, bidaiatzeko momentuan, gidariari edo txartel saltzaileari komentatzea (autobusa herritik pasatu ahal izateko).

Zigoitiko Udalak, bere aldetik, *Eskarira hurbiltzeko zerbitzu* hori Mendarozketa eta Gorostizako San Pedroko baserrientzako ere eskatu du.

Gasteiztik Etxagueneraino kalkulaturako bidaien iraupena, 40 minutukoa izango da. Eta bidaiarik motzena, Gasteiztik Etxabarri Ibinarainokoa, 15 minutukoa.

### Asteburuko zerbitzua

Garraio publikoko antolamendu berriak Zigoitira ekarriko duen beste hobekuntza bat maiztasunen handiagotzea da. Gasteizera joateko, astelehenetik ostiralera, oraingoko 4 bidaietatik 7ra pasatuko da eta bueltatzeko, 3 bidaietatik 6ra.

Orduetegi dagokienez aurreproiektuan planteatutako irteerak ondorengo orduetan izango dira, Etxaguen herritik Gasteizera: 6:40, 8:20, 10:00, 14:15, 15:55, 18:40 eta 22:00etan.

Eta Gasteiztik Zigoitira etortzeko: 7:30, 9:10, 13:25, 15:05, 17:50 eta 21:10ean.

Baina zalantzarik gabe, berriena eta agian garrantzitsuena izango da asteburuetan ere autobus zerbitzua eskainiko dela, orain arte zegoen gabezia handiari erantzunez.

Larunbatetan eta igandetan 2 irteera egongo dira goizez, eta beste 2 arratsaldez. Etxaguendik Gasteizera 9:50, 13:00, 16:20 eta 22:35ean.

Bueltatzeko, autobusak hiritik aterako dira 9:00, 12:10, 15:30 eta 21:45ean.

### Zaitegirako garraioa

Zaitegitik bi lineak pasatuko dira, bata asteko lanegunetan eta bestea asteburuetan. Gasteiztik Zaitegirako bidaiaren iraupena 12 minutukoa izango da eta Zaitegitik Murgiara, 6 minutukoa. Lanegunetan *Gasteiz/Murgia/Izarra* lineak emango du zerbitzua eta Gasteizera joateko autobusa Zaitegitik aterako da 6:46, 8:01, 16:21, 19:06 eta 21:36ean.

Bueltatzeko, Zaitegin geldialdia egingo duen autobusa 8:20, 13:35, 15:20, 18:05 eta 20:35ean aterako da Gasteiztik.

Asteburuetan *Gasteiz-Amurrio-Laudio* lineak eskainiko du zerbitzua. Gasteizera joateko 7:52, 10:32, 17:22 eta 20:47ean pasatuko da autobusa Zaitegitik.

Eta herrira itzultzeko autobusa Gasteiztik 8:20, 13:00, 18:35 eta 21:15ean aterako da.

## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

- Lehenengoa amaituta, bigarrena (2014-2017) jarri da martxan
- Orain arte jarritako helburuak bete dira, baina lan asko dago egiteko

2009an onartu zen lehenengo aldiz, Zigoitiko Udalean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Eusko Jaurlaritzaren irizpideen arabera. Hain zuzen ere, 2010-2012 epealdirako onartu zen (ondoren, epealdia luzatu zen beste urtebetez). Plan horretan jasotzen ziren Zigoitiko Udalak hurrengo 4 urteetan, udalerrian, esparruz esparru, euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriak.

2014aren hasieran, epealdia agortu delarik, orain arte egindakoaren balorazioa egin eta helburu berriak jartzeko garai iritsi da. Horretarako, Zigoitiko Udalaren euskara zerbitzuak 3 bilera antolatu ditu, irekiak: udalerriko elkarteei eta interesa zuten norbanakoei zuzenduak.

Bilera horietan, batetik, **2010-2013 epealdiaren balorazioa** egin da. Esparruz esparru, 2009an ezarritako helburuen betetze gradua aztertu da eta, laburpen gisara, esan daiteke balorazioa positiboa izan dela: oraindik lan asko egiteko badago ere, orain arte jarritako helburuak bete dira.

Bestetik, izandako bileretan **2014-2017 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) proposamena** diseinatu da, Jaurlaritzaren irizpideekin bat eginez. Laburpen bat eginez, ondorengoak lirakeke planaren ardatzak: lehenetsitako xede-talde gisa gurasoak, gazteak eta umeak hartzea; ekintzak gauzatzeko orduan elkarleen parte hartzea areagotzea, eta sensibilizazio-lanetan indar handiagoa egitea. Izan ere, plan estrategikoko neurriak gauzatzeko, urtero kudeaketa plan bat egitea erabaki zen. Horretaz lan talde bat arduratuko da, udaleko ordezkariak eta herriko eragileez osatua.



### Ekintza Planeko hainbat ideia

Zigoitiko bizimoduko 11 eremu hartu dira kontuan plana garatzeko, eta bakoitzean helburuak finkatu, erabilgarriak diren egiturak zehaztu eta ekintzak diseinatu dira. Lehenengo eremua *Familia bidezko transmisioa* da eta markatutako xedea 'transmisioan euskararen erabilera handitzea, Zigoitian dauden egiturekin elkarlanean', hain zuzen ere. Horretarako eskola, guraso elkarte eta zentro soziokulturalaren lankidetzarekin, besteak beste, euskarazko materialaren katalogoa banatuko da, sensibilizazio eta motibazio kanpainak jarriko dira martxan eta, errolatzera datozenen, haur jaioberrientzako materiala banatuko da.

Zehazteke dauden ekintzak ere badaude, adibidez guraso eta etxerako lanen kasuan. Ohi bezala zaila den langintza hori errazteko formulak aztertzen saiatzen ari dira.

Eta horrela, gainontzeko 10 eremuetan: Irakaskuntzan, Euskalduntze eta alfabetatzean, Arlo sozioekonomikoan, Aisian eta kirolean, Liburugintzan, Kulturgintzan, Hedabideetan, Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, Sensibilizazio eta motibazioan, eta Barne proiektioan.

Aurretik dagoena ez da nolana hiko lana, baina guztion artean baietz atera!

## Zigoitiak frackingari EZETZ dio

Udalak frackingaren aurkako Herri Ekimen Legegilea (HEL) lagundu du, 30.000 sinadura biltzeko asmoz · Zigoitia 'fracking gabeko udalerrira' da



**FRACKING** edo haustura hidraulikoa gas naturala edo petrolioia erauzteko erabiltzen den teknika ez konbentzionala da. Bere egiturari erreparatuz, gas hori 'normala' da, baina gainontzekoarekin alderatuta, frackingaren bidez lortutakoa ez dago poltsa handietan, baizik eta ateratzeko apurtu behar diren kapa geologiko desberdinetan. Ohiko gasari dagokionez, putzu baten bidez kantitate handiak lor daitezke. Konbentzionala ez den gasa ateratzeko, aldiz, ehun edo mila putzu zulatu behar dira, bakoitzean lortutako kantitatea oso txikia baita.

Haustura hidraulikoa egiteak ondorio kaltegarriak sortzen ditu\*. Besteak beste:

- putzu bakar bat zulatzeko, milioi bat litro ur erabili behar dira
- ur horri produktu kimiko arriskutsuak gehitzen dizkiote, ura kutsatuz
- putzuak akuifero gainean zulatzen direnean, aipatutako ur eta produktu kimikoen nahasketak akuiferoaren ura kutsa dezake
- istripurik izanez gero, azaleko urak ere kutsatuko lirakeke
- ateratako gasaren zati bat atmosferara askatzen da, berotegi efektua areagotuz (CO2, karbono dioxidoaren emisioa, 23 aldiz handiagoa da)
- lur zoru kantitate itzela okupatu behar da, bestelako erabilera baztertzuz
  - zenbat eta putzu gehiago eraiki, gero eta istripu arrisku handiagoa izango da
- energia berriztagarriei atea ixten zaizkie

(\*: nazioarteko txosten eta ikerketatik ateratako datuak. Hauen artean: 'Petrolioak eta arbel harrietako gasak ingurumenean eta giza osasunean duen inpaktua', Ingurumeneko, Osasun Publikoko eta Elikadura-Seguritasuneko Europako Parlamentuko Komisia eskatutakoa. Dokumentuaren laburpena eskuratzeko, jo hurrengo estekara:

<http://fracturahidraulicano.files.wordpress.com/2011/07/resumen-ejecutivo-informe-europeo.pdf>

Frackinga debekatuta dago Frantzia eta Herbehereetan, bere erabilera dakartzan arriskuak direla eta

Hori guztia kontuan hartuta, Zigoitiko Udalak *Fracking EZ Araba Plataformak* haustura hidraulikoaren teknika debekatzeko martxan jarritako Herri Ekimen Legegileari (HEL) atxikimendua eman dio. HEL deitutako ekimena herritarrek lege proposamena Legebiltzarrera eraman ahal izateko bidea da; hor eztabaidatuko da, onartzeko ala gaitzesteko. Baina hara ailegatzeko 30.000 sinaduraren bidez berretsi behar da eskaria, horretarako prestatutako orrietan (zenbaki eta zigilu ofizialekin) eta 4 hilabeteko epean (2 hilabete gehiago luza daitezke). Orriak Zigoitiko udaletxean eta Zentro Soziokulturalean daude eskuragarri. Sinadurak uztaile arte bilduko dira.

**Informazio gehiagorako:**  
www.frackingezaraba.org



## 'Euskaraz jolastu nahi dut'



Txirrinak jo, umeak eskolatik atera, gurasoak ailegatu eta jolasten hasten dira. Gurasoak, bai! Zigoitiko Gorbeia Eskolan gaude, 'Euskaraz jolastu nahi dut' lantegian bertan. "Umearen tokia hartuta, saioaren dinamizatzaileak azaltzen du jolasa, nondik datorren, erabiltzen diren esamoldeak (adibidez "te la quedas" esateko "bete zara"), eta jarraian jolasa aurrera eramaten da", azaldu digute. Ez dago esan beharrik primeran pasatzen dutela.

Gorbeia Eskolako Euskara Batzordekoek asmatutako tailerra da, guraso eta irakasleen artean prestatutakoa. 'Gehienetan beste zereginen denbora kenduz eta maitasunez eta ilusioz beteriko denbora tarte bat eskainiz', kontatu digute. Nondik nora doan ekimena ere, argi daukate: 'Euskal jolas ugari daude, batzuk euskal ohituretatik hartuak eta beste batzuk moldatuak eta jolas hauen bidez gure identitate kulturalaren transmisioa egiten ari gara. Beraz, gure helburua ez litzateke tailer hauetan geratuko, gure asmoa harago baitoa: jolasak kalera ateratzeko eta kalean jolasteko dira, euskararen presentzia hedatuz, umeen parte hartze aktiboa bultzatuz eta euskaraz jolastuz eta disfrutatuz. Ikastaro hauetan ikasitakoa kaxoi baten barruan geratuko balitz, akabo. Eta hau

guztion esku geratzen den ardura da'.

### Ostiraleko topaketak

Eta, dirudenez, ondo baino hobeto hartu dute ardura. 'Hasieran hiru saio programatu genituen. Lehendabizikoa 2 eta 3 urteko umeen gurasoei zuzenduta egon da. Bigarrenean 4 eta 5 urteko umeen familiak etorri ziren. Eta hirugarren saioan Lehen hezkuntzako jolas dinamiko zein estatikoak landu ziren'. Hor amaitu behar zuen lantegiak, baina gurasoek eskatuta, ostiral batzuetan topaketa batzuk egingo dituzte beraien artean, handiek gehi txikiek parkean edo kalean jolasteko, ikasitako jolasak burutzeko. Aurten da lantegia martxan jarri duten lehendabiziko urtea eta oraindik bukatu gabe dagoenez balorazio orokorra egin gabe dago. Baina izan duen arrakasta ikusita, bi urtean behin egitea pentsatu dute. Publikoa ez da faltako. Dibertitzeko, beren seme-alabekin euskara praktikatzeko. Eta joko berriak ikasteko. Elkarrizketan izen berri batzuk atera dira: 'Maite zaitut', 'Bikingoen xakea'... baina ez digute zertan datzaten kontatu nahi. 'Topaketetan jolasteko aukera izango duzelako eta espero dugu zuek han egotea antolatzen den ostiralean'. Eta bai, irrika bizia sortu digute.

## Zigoitiko Ekonomatoa: bertakoa, zuzena eta garbia



### Noiz eta nola jaio zen elkarteak?

Zigoitiko ekonomatoa 2011ko udaberrian jaio zen. 'Ozaetakoa ezagutu eta hurrengo asteetan sortu zen Zigoitikoa. Nor bere elikaduraren jabe izateko garrantziaz jabetuz, elikadura eredu garbi zein gertukoa bultzatzeko asmoarekin bailarako jende anitz elkartu ondoren eratu zen', azaldu digute arduradunek.

### Nortzuk dira eta non daude?

Gaur egun 70 familiak osatzen dute, konpromiso zehatz batzuk harturik elkartearen kide izateko. Urtean behin ordaindu beharreko kuota pagatzea eta noizean behin Ekonomatoko ardura hartzea dira baldintzak. Kide izateko beharrezkoa da bertakoa izatea edota bailarekin harreman zuzena edukitzea. Lokalari dagokionez, Bengolarra eraikineko beheko solairuan dago eta ostiraleko egoten da zabalik, 5:30etatik 8:30etara, kideetako bi bertan daudela, enkargatu edo saltzaile moduan.

### Nola funtzionatzen du?

Gaur egun denetik erosteko aukera dago bertan: 'beti ere ahalik eta gertukoaren zein ekologikoen diren produktuak aukeratzen ditugu. Bai produktu freskoak (barazkiak, fruituak, ardi esnekiak, behi zein txahal haragiak...), edota despentsako produktuak (kontserbak, arrozak, pastak, irinak...), baita garbiketarako hainbat produktu (xaboiak, hortzetako pasta,

txanpuak...) eta kideek ekoizten duten hainbat gauza ere'. Guzti horrek ekartzen duen lana modu boluntarioan burutuz eta erosketak talde moduan eginez. Horrela lortzen dute kalitatezko erosketak ahalik eta gehien merkatzea, produktuei jatorrizko prezioa igo gabe. Gainera, urtero asanblada bat egiten dute eta zuzendaritza talde bat eratzen da, non erabakiak hartzen diren. Eta edozein kidek nahi duen iradokizun edo eskaerak egin ditzake.

### Moda berria ala eredu desberdina?

'Guretzat argi dago kontsumitzeko era aldatu beharra dagoela. Elikadura enpresa erraldoiei giltza kendu eta herri inguruetakoko ekoizpen txikiei eman nahi diegu. Gaur egun burujabetza zaila izanik, behintzat ahoan sartzen duguna ondo ezagutzea eta harekin ados egotea oso garrantzitsua dela uste dugu. Bertakoa, zuzena eta garbia den elikadura eredu batean begia jarritz, aurrera goaz Zigoitiko Ekonomatoan. Horretarako hainbat ekimen burutzen ditugu, tailerrak, hitzaldiak, ekoizleei bisitak... Esate baterako, maiatzaren 11n Zigoitiko Ekoizle eta Artisauen Merkatuari hasiera emango diogu, eta hileroko bigarren igandean egingo da urte osoan zehar'.

**Informazio gehiagorako:** T\_945 40 33 08  
zigoitikoekonomatoa@gmail.com  
www.zigoitikoekonomatoa.tk



Maiatzaren 10ean, larunbatean, Zigoitian

## Gorbeia Parke Naturaleko I. Abere Azoka

**Gorbeia Parke Naturaleko I. Abere Azoka**

100 abelburu baino gehiago: nagusiki, behiak eta zaldiak; baina baita zenbait ardi eta ahuntz ere, azken hauek 20 sortatan banatuta. Bertoko artisau eta ekoizleak. Gorbeia Parke Naturaleko XVI. Abere Azokaz ari gara, gure abeltzainek parke naturala dagoen bezala mantentzeko egiten dituzten jardueren eta lan garrantzitsuen erakusleia, hain zuzen ere. Hitzordurako deialdia egin zaie parkean bazka-ustiapenak dituzten abeltzain guztiei, hau da, Gorbeia barruan dauden udalerrietako abeltzainei: Arabako aldetik Zigoitia, Zuia eta Urkabustaizkoak eta, Bizkaia aldetik, Orozko, Artea, Areatza, Zeberio eta Zeanurikoak. Eta baita udalari horietan lan egiten duten artisau eta ekoizle guztiei ere; gazta, ezti, garagardo, baserriko ogi, euskal pastel eta likore ekoizleak, esate baterako.

Modu honetan berreskuratu da iaz, aurrekontu faltagatik, bertan behera geratu zen azoka; helburu bera izaten jarraituko du, gure abeltzaintzaren erakusleia izatea, baina antolamendua aldatuz.

### Antolamendu berria

Feria lau udalek bakarrik antolatzen dute: Zigoitiak, Zuiak, Zeanurik eta Orozkok. 2012ra arte urtean behin egiten zen, parkeko aipatutako udalek txandaka antolatuta eta bertoko feriarekin batera. Zigoitiaren kasuan, Gorbeia Zaldiaren Feriarekin batera.

Joan den urtean Gorbeia Parke Naturaleko Patronatuak 4.500 € gorde zituen feriarako, oso kopuru txikia kostua eta aurreko urteetan emandako diru-laguntza kontuan hartuta (18.000 euroko laguntza 2012an eta 9.000 €koa 2011n). Zigoitiko Udalak antolatzeari



ezez esan zion orduan, gainontzeko udalen adostasunarekin, eta bakarrik zaldiarena egin zuen.

Egoera desblokeatzeko, Arabako Ingurumeneko Diputatuak eta Patronatuak lehendakariak proposatu zuten Gorbeia Abere Azoka bertoko feriatik bereiztea eta egun finko batean egitea, berezko nortasuna izateko. Negoziatu ondoren, udalek baietz esan eta bakoitzari 2.500 € emateko konpromisoa hartu zuten, eta Diputazioak beste 20.000 € urtero. Akordioaren baldintzak hitzarmen batean jaso behar dira, baina oraindik sinatu gabe dago, 'prestatzeko denbora faltagatik', Parkeko zuzendariaren arabera.

Horrela gauzak, azoka hemendik aurrera maiatzaren 2. larunbatean izango da eta Zigoitia, Zuia, Orozko eta Zeanuriko Udalek antolatuko dute txandaka.

Aldaketarekin Gorbeia Azokak pisua eta nortasuna lortzea espero da, eta baita nekazari eta abeltzain azoken egutegian sendotzea ere.

## 3 Handiak aurten ere, Gopegitik abiatuta

**Mendi lasterketak 1.500 korrikalari ekarriko ditu Zigoitira ekainaren 14an**

Hilabete bat baino ez da falta *3 Handiak* mendi lasterketa ospetsu eta gogorra iristeko. Eta aurten ere Gopegin izango du abiapuntua. Manuel Iradier Txangolari Elkarteak antolatuta, probaren XIX. edizioa ekainaren 14an, larunbatez, izango da eta 1.500 mendizale baino gehiagok hartuko dute parte. Ikuskizuna, beraz, ziurtatuta dago. Batez ere irteeran: gauerdian, talde hain erraldoia osaturik, bakoitza bere bekokiko argiarekin... benetan ikusteko! Super gizakientzako bakarrik egindako ibilbideak Gopegi, Murua, Gorbeia, Ubide, Otxandio, Urkiola, Anboto, Orixol, Jarindo, Landi, Usakoatxa, Urdingain, Mugarriluze, Aumategi, Artia eta Aizkorri zeharkatuko du - 100.170 metro guztira-, Araiara heltzeko. 24 ordu baino gutxiagotan. Bestela, deskalifikatuta. Bukatzea lortu dutenek emozioz beteriko nahasketa dela diote, non basoak, zelaiak, haitzak eta bistak benetan ikusgarriak diren, eta baita euria, lokatza, beroa, hotza, nekea, gosea, logura, etsipena eta helmuga ikusteko egundoko poza ere. Ez da alferrik Euskal Herriko lasterketarik handiena.

### Lasterketaren gakoak

100 kilometroko iraupen luzeko mendi proba da

**GORBEIA, ANBOTO** eta **AIZKORRI** mendietara igotzen da

Pilatutako igoera **5.075 metrokoa** da. Eta beste hainbeste jaitsierakoa

**1987an jaio zen** eta 1997ra arte, urtean behin egin zen. 1998tik hona, aldiz, bi urtez behin antolatzen da. Aurtengoa **XIX. edizioa** izango da

Aurreko edizioan (2012koan) **1.571** lagunek eman zuten izena eta **855ek** lortu zuten bukatzea

Edizio hartan, gizonetan, Tolosako **Iker Karrera** izan zen azkarrena, **10'23** orduko denborarekin. Emakumeen artean, berriz, Abadiñoko **Oihana Azkorbebeitita**, **13'12** orduko denborarekin.

**Adin handieneko errekorra**, Ermuako **Jesús Garaikoetxeak** lortu zuen. **71 urteko mendizaleak** **23'12** ordu egin zituen ibilbidea betetzeko

Iturria: Manuel Iradier Txangolari Elkarteak.



Argazkia: Juanan Gutiérrez.

## Erasorako prestatu

Testua eta argazki-aukeraketa: **J. Arbulu**

Erik Satiek zioenez, 'irakurle ona saiatuko da ez izutzen inoiz bere entzule bakarra. Animatu egingo du: leunki hitz egingo dio, garraztasunik gabe - irakurri behar dion liburua gorai patuz -. Hotz-hotzean, *bere aurkaria* nolabaiteko eraso baterako prestatuko du'.

Arreta deitzen duena da, hasteko, entzule bakar horri *aurkaria* deitzea. Orduan pentsatzen dut agian, norbera, bere buruarentzako azken *aurkaria* edo benetako deabrua dela. Edo agian Satiek *aurkaria* hitza erabiltzen du adierazteko bakardadean irakurtzeak bestetasunera itzularazten gaituela beti: izan norberarena, lagunena edo lagun izatera irits daitezkeen horiena.

*Corominasen* Hiztegi etimologikoak *aurkaria* hitza *adierazi* hitzarekin ahaidetzen du. Dirudienez, bi erak latinezko *vertere*-tik datoz (biratzea, biraraztea, buelta ematea, eta baita lurrera botatzea, aldatzea eta bihurtzea ere). Hortik dator *bertso* hitza ere. Horren arabera *aurkaria* da *gu bihurtzen* edo *lurrera botatzen* saiatzen dena, baina aldi berean beste aldera gu eramaten, itzulia guri ematen saiatzen dena da; hots, gure buruarengana bueltatzea eta geure bakardade apartari eta zoragarriari aurre egitea.

Gure *aurkaria* erasotzeko moduan prestatzen dugu irakurketa eta gure aurkaria den hori, gure buruarengana bueltatzen den neurrian, gure gidaria ere bada. Irakurketan bikoitzen gara eta gero gure dobleak elkartzen ditugu. Unibertsoreen bi mugimenduak, zabaltzearena eta uzurtzearena, haragiztatzen ditugu. Irakurtzerakoan gure burua irakurtzen dugu. Horregatik, Emersonesango lukeen moduan, liburu onenek hunkitzen gaituzte, ziurtzat jo baitaiteke naturak idatzi eta naturak berak irakurtzen dituela. Neurri batean, irakurketak eraikin-gizabanako mugak zalantzan jartzen ditu.



Erik Satie.



### Espaziuntziaren parekoa

Zer bitxia! Bakoitzak gure buruarekin egiten dugun hori, munduarekin ere egiten dugu. Irakurtzerakoan, mundutik bereizterakoan, ondoren gure buruarekin eta munduarekin estu-estu konektatzeko, paradoxa benetan ederra eraikitzen dugu. Gure gidariak, espaziuntzi batek bezala, mundura irekitzen gaitu gugana ekarri ondoren. Horregatik, nire ustez esan genezake irakurketak Newtonen espazioko legeei ere aurka egiten diela.

Eta seguru asko, irakurketa on bat egin ondoren, azken finean, erasoko genituzkeenak ezezagunarekin komunikatzen gaituzten zubiak lirarteke. Eta ziur aski ezezaguna zerbait hurbila izango da beti. Beste norbait, bizilaguna, laguna edo lankidea. Gu geu. Misterio hutsa. Ezezaguna beti erakusten delako ezinezko paisaien edo paradoxa filosofikoen bitartez. Ezezaguna delako pauso bakoitzean gure betazalak igurzten dituen hori. Gizarte honetarako probetxugarria dena kontuan hartuta, ezertarako ez balio duen hori. Hala ere, Harold Bloomek *Nola irakurri eta zergatik* liburuan adierazten duen moduan, informazioa eta jakituria ez dira gauza bera. Eta jakituria behar dugu aldaketari aurre egiteko. Gainera badakigu azken aldaketa unibertsala dela. Pertsona guztiek eraso beharko dugun zerbait.

### Haztatu, gogoeta egin

Bere aldetik, Sloterdijkek *Giza parkerako arauak* lanean azaltzen duen moduan, liburuak dira lagunei zuzendutako tamaina handiko gutunak bezalakoak; korrespondentzia horretan, idazten duenak inoiz ez daki nor izango den bere irakurlea. Interesgarria da honela iraganarekin konektatzen dugula eta aldi berean orainaldiaren eta iraganaren bitarteko muga ezabatzen dugula, edo, gauza bera dena, denboraren ikuskera berri bati egiten diogula aurre. Azkenik, Sir Francis Bacon: 'ez irakurri kontrakoa esateko, ezta sinesteko edo segurutzat jotzeko, ezta elkarrizketa-gaia edo diskurtsoa aurkitzeko, baizik eta haztatzeko eta gogoeta egiteko'. Irakurri eztabaidatzeko eta zure burua zalantzan jartzeko, eta baita harritzeko eta liluratzeko ere. Kendu jergak burutik eta erasorako prestatu.



Francis Bacon.



## Argazki kamera atera eta arkatza zorroztu!

### Zigoitiko XVI. Argazki Lehiaketa eta Eguzki Jaia iragartzeko Kartelaren Lehiaketa martxan daude


Lehenengoan, **uztailaren jaiak iragartzeko**, kartelak - originalak, bestelako lehiaketetan entregatu ez direnak eta teknika eta material librekoak- ekainaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira.

**Argazki lehiaketaren** gaia, aldiz, 'Zigoitiko Harriak' da. Eta aurkezteko epea uztailaren 4ra arte egongo da irekita.

Aurkeztutako lanekin erakusketa bana egingo dira Zigoitiko Zentro Soziokulturalean, uztailaren 26tik 30era.

#### Info gehiagorako:

Zigoitiko Udala  
T\_945 464 041



#### Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA	
	ETXAGUEN 20:50	OKIZETA 7:00	ETXAGUEN 7:02
		OKIZETA 10:00	OKIZETA 10:02
		OKIZETA 15:35	OKIZETA 15:37
		OKIZETA 20:50	OKIZETA 20:52
		OKIZETA 7:04	OKIZETA 10:04
		OKIZETA 15:39	OKIZETA 15:39
		OKIZETA 20:54	OKIZETA 20:54
		OKIZETA 7:06	OKIZETA 10:08
		OKIZETA 15:43	OKIZETA 15:45
		OKIZETA 20:58	OKIZETA 21:00
		OKIZETA 7:10	OKIZETA 10:10
		OKIZETA 15:48	OKIZETA 15:48
		OKIZETA 21:00	OKIZETA 21:00
		OKIZETA 7:13	OKIZETA 10:13
		OKIZETA 15:53	OKIZETA 15:53
		OKIZETA 21:08	OKIZETA 21:08
		OKIZETA 7:18	OKIZETA 10:25
		OKIZETA 16:00	OKIZETA 16:00
		OKIZETA 21:15	OKIZETA 21:15
		OKIZETA 7:50	OKIZETA 10:50
		OKIZETA 16:25	OKIZETA 16:25
		OKIZETA 21:40	OKIZETA 21:40
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasurtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua		*Servicio de acercamiento con aviso previo Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar	

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA	
	VITORIA-GASTEIZ 9:00	OKIZETA 9:25	ETXAGUEN 9:32
	VITORIA-GASTEIZ 14:45	OKIZETA 15:10	OKIZETA 15:17
	VITORIA-GASTEIZ 20:00	OKIZETA 20:25	OKIZETA 20:32
	VITORIA-GASTEIZ 9:42	VITORIA-GASTEIZ 9:46	VITORIA-GASTEIZ 9:48
	VITORIA-GASTEIZ 15:27	VITORIA-GASTEIZ 15:31	VITORIA-GASTEIZ 15:33
	VITORIA-GASTEIZ 20:42	VITORIA-GASTEIZ 20:46	VITORIA-GASTEIZ 20:48
	VITORIA-GASTEIZ 9:46	VITORIA-GASTEIZ 9:48	VITORIA-GASTEIZ 9:50
	VITORIA-GASTEIZ 15:35	VITORIA-GASTEIZ 15:35	VITORIA-GASTEIZ 15:35
	VITORIA-GASTEIZ 20:50	VITORIA-GASTEIZ 20:50	VITORIA-GASTEIZ 20:50
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua		*Servicio de acercamiento con aviso previo	